


Medium ahaltzuak

Esatzen da irudi batek mila hitz bezainbeste balio duela. Edozein gizatarrenak baino gehiago baliteke, baina horrelako aipamen hotz eta motzak ondo daude kolpe bakarrean kultur kontsumitzaileen artean arreta pizteko, gaueko hamaikak aldera, Donostiako Zinemaldi giro lerroan zaudela. Besterik ez. Erabaki hori serio sinesten duenak hitzaren indar eraginkor eta askatzailea ukatzen du, jartzen da poesiaren beraren existentziarekin aurrez aurre etsaitua. Ez baita aski Che Guevararen irudia kamisetan jarri eta gure izateko arrazoiaz dena esanda dagoe-la azaltzea. Abituak ez ei du fraidea egiten. Erljioa eta zientzia historia bera kontatzen duten bi hizkuntza ezberdinak direla esan zuenean, Vatikanoko piromanoek Galileo Galilei zuzenean erreko zuten gustura, ordea haren testuak kiskali zituzten azkarren, bere hitz bide-urratzaileak, astronomoaren irudia baino. Zera ere irakurtzen dugu kalean paretetako lerroetan, hots, “Herriak du hitza”, ez “Herriak du argazki-kamera”. Epaileak *Euskaldunon Egunkaria* ixteko agindua eman zuen 2004ko otsailaren 20ko ordu txikietan, ez Zarauzko Photomuseuma desagertu arazteko mandatua. Hala ere, kontuz, argazkiak erakustea delitua dela *Potroshop* bitartez erabakitzen ari diren honetan, lasterrera ezkontza eguneko argazki-albumak ere zentsuratuko dizkigu poliziak. Eta gu Brinkolan ezkondu ginen, baserrian! Sonyk, gainera, kamera berria plazaratu du, irribarrera detektatu arte argazkia ateratzeari uko egiten dion digitala, pentsa argazkilariren lan nekeak babes publikoko etxebizitzaren zozketa batetik zorte gabe ateratakoen aurpegien aurrean. Aurten ere ez dira modelo horrelakoak asko salduko



CONCECETA PROBANZA

José Luis Padrón

Agirre

Urkiza

errealzaleen artean. Horixe kostatu zait gehien, alegia txalapartari berria nauzuen atal honetarako argazkian egiazko irribarrearen antza duen zerbait erakustea, eta ez da pozik ez nagoelako *habitat* ederrean jarria, fotokonposizioaren kamasutra moduko horretan, orain goian, bihar azpian, etzi erdian, baina sexu onak gogoia bezala, argazkiak argazki-oina behar du, ibil dadin, berriz esateko, berriz izateko hil baino lehen. Hitzek hilko garelako badakitela idatzi zuen Oteizak zoragarri. Argazkiek ere bai. Horrexegatik dira, beharbada, heriotzaren gainetik gailentzen. Hura idazten dutelako, hura kantatzen. Garcia-Alixek 1999ko Argazki Sari Nazionala jaso zuen, interes handiz jarraitzen dut argazkilarari honen sorkuntza lana, eta orain gutxi egin berri dioten elkarrizketa batean argazkiak “medium boteretsuak” direla esan du. Gustatu zait. Agian horregatik da DVA gehien saltzen den kazeta, espiritualtasun kontua, “Bo, nik eskelengatik”, hil berriaren aurpegi paranormalari begira, igual zaielako konexioa arinagoa Goian Begoko biztanleekin. Pluraltasunak fantasmekin egotera behartzen gaitu etengabe. Eta orain bururatu zait bai badagoela argazki oinak idaztea baino ofizio ederragorik, eskelak idaztea. Hor euskal idazleentzat bezero mordo. Nik, badaezpada, nirea idatzita utzi dut, sendi guztietan beti baitago une hunkigarri horietan lirika-ekin ere animatzen den inutil bat. J. Martinez Bordiu *liriko kostunbristari* entzun nion aitona asko disfrutatzeke aukera izan zuela berak. Nik ere bai, soilik ordea argazki egina, memoria historikoan ongi hilik, *Ghost* mingarri etekinik gabe. Baina, tira, ez etsi, hildakoek Galizian, jakina denez, bizitza normala egiten dugu. ■

Argazkiak argazki-oina behar du, ibil dadin, berriz esateko, berriz izateko hil baino lehen.

Hitzek hilko garelako badakitela idatzi zuen

Oteizak zoragarri. Argazkiek ere bai.

Horrexegatik dira, beharbada,

heriotzaren gainetik gailentzen